

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko urriaren 25ean izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

**“HERIOTZA-ZIGORRAREN AURKAKOA ETA
ZIGOR HORI MUNDU OSOAN
DESAGERRARAZTEAREN ALDEKOA**

*Urriaren 10a. Heriotza-zigorren aurkako
Munduko Eguna*

*Azaroaren 30a. Bizitzaren Aldeko Hirien
Nazioarteko Jardunaldia*

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Heriotza-zigorra indargabetzearen aldeko mugimenduak azken hamarkadetan izandako aurrerapena ez da gelditu behar, harik eta zigor hori planeta osoan erabat desagerraraztea lortu arte. Giza Eskubideetan oinarritzkoena denari, hau da, bizitzeko eskubideari, erasotzen dion praktika batekin amaitzeko beharraren inguruko kontzientziazioa aurrera doan arren, asko dira, gehiegi, oraindik ere planetako herriak, heriotza-zigorra aplikatzen jarraitzen dutenak.

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 25 de octubre de 2022, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

**“CONTRA LA PENA MUERTE Y EN FAVOR DE
SU ERRADICACIÓN A ESCALA MUNDIAL**

10 de octubre. Día Mundial contra la pena de muerte

30 de noviembre. Jornada Internacional de Ciudades por la Vida

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El avance registrado a lo largo de las últimas décadas por el movimiento en favor de la abolición de la pena de muerte no debe detenerse hasta lograr su completa erradicación en el conjunto del planeta. A pesar del progreso de la concienciación sobre la necesidad de poner fin a una práctica que atenta contra el más elemental de los Derechos Humanos, el derecho a la vida, son aún muchos, demasiados, los lugares del planeta en el que la pena de muerte continúa aplicándose.



Ekimen ugari daude, mundu mailan, eskura dituzten bitarteko guztiak erabilita, heriotza-zigorraren aurkako kontzientzia hedatzen saiatzen direnak. Besteak beste, Heriotza Zigorraren Aurkako Munduko Eguna ospatzen da urriaren 10ean, Heriotza Zigorraren aurkako Munduko Koalizioak sustatuta.

Mugimendu global horren barruan, Bizitzaren Aldeko Hirien Sarea / Heriotza Zigorraren aurkako Hirien Sarea ere nabarmentzen da. Sare hori Sant'Egidio Komunitateak eta Amnesty Internationalek sustatzen dute, eta Donostiako Udala hango kide da, 2016az geroztik. Urtero, azaroaren 30ean, Toskanako Dukerri Handiak heriotza-zigorra indargabetu zuela ospatzen da, hori egin zuen lehen Estatua izan baitzen, 1786an, azaroaren 30 batean, hain zuzen.

Harrezkero, 144 herrialdek heriotza-zigorra indargabetu dute. Hala ere, asko dira oraindik hura aplikatzen jarraitzen dutenak, eta, beraz, desagertzearen aldeko borrokak mundu osoan jarraitu behar du.

Horiek horrela direla, erakunde-adierazpen hau aurkezten dugu

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

1.- Donostiako Udalbatzak berretsi egiten du heriotza-zigorraren aurka eta mundu mailan hura indargabetzearen alde duen konpromisoa. Bestalde, dei egiten die herritarrei, urriaren 10ean, Heriotza Zigorraren aurkako Munduko Eguna dela-eta, antolatzen diren ekimen guztietan parte hartzeko. Heriotza Zigorraren aurkako Munduko Koalizioak sustatutako ekimena da.

2.- Donostiako Udalbatzak berretsi egiten du Bizitzaren Aldeko eta Heriotza Zigorraren Aurkako Hirien Sarearekin duen atxikimendua. Sare hori Sant'Egidio Komunitateak sustatzen du, eta Donostia hango kide da 2016az geroztik. Sareak Bizitzaren Aldeko Hirien Nazioarteko Jardunaldia antolatzen du urtero, azaroaren 30ean, eta, horretarako ere donostiarrei eskatzen diegu babesik handiena

Son numerosas las iniciativas a escala global que tratan de expandir por todos los medios a su alcance la conciencia contra la pena de muerte. Entre ellas, se encuentra la celebración, el 10 de octubre, del Día Mundial Contra la Pena de Muerte, promovido por la Coalición Mundial contra la Pena de Muerte.

También ocupa un lugar destacado dentro de este movimiento global la Red de Ciudades por la Vida / Ciudades contra la Pena de Muerte, promovida por la Comunidad de Sant'Egidio y Amnistía Internacional, y de la que el Ayuntamiento de Donostia forma parte desde 2016. El 30 de noviembre de cada año se conmemora que en el mismo día de 1786 el Gran Ducado de Toscana fuera el primer Estado en abolir la pena de muerte.

Desde entonces, son 144 los países que han dado el paso de abolir la pena de muerte. Sin embargo, aún son muchos los que continúan aplicándola, por lo que la lucha en favor de su desaparición debe continuar en todo el mundo.

Por todo ello, presentamos la siguiente

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián reafirma su compromiso contra la existencia de la pena de muerte y en favor de su abolición a escala mundial. Asimismo, realiza un llamamiento a la ciudadanía para que participe en cuantas iniciativas se organicen con motivo de la celebración, el 10 de octubre, del Día Mundial contra la Pena de Muerte, promovido por la Coalición mundial contra la Pena de Muerte.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián ratifica su adhesión a la red de Ciudades por la Vida y Contra la Pena de Muerte, impulsada por la Comunidad de Sant'Egidio, y de la que forma parte desde 2016. Esta red desarrolla cada 30 de noviembre una Jornada Internacional de Ciudades por la Vida, para la que también solicitamos el máximo apoyo por parte de la



emateko.

ciudadanía donostiarra.

3.- Donostiako Udalbatzak eskatzen die heriotza-zigorra oraindik ere aplikatzen duten nazio eta lurralde guztiei beharrezko legealdaketak egin ditzatela Giza Eskubideetan oinarritukoena denari, bizitzeko eskubideari alegia, erasotzen dion praktika hori desagerrarazteko.” =====

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a todas aquellas naciones y territorios en las que aún se aplica la pena de muerte a introducir los cambios legislativos necesarios para erradicar esta práctica que atenta contra el más elemental de los Derechos Humanos: el derecho a la vida.”
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko urriaren 25ean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 25 de octubre de 2022.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**